botila barneko aztia

eta beste hainbat istorio

Imanol Uriñok botilaratutako magia ikuskizuna

CANCAMISA Teatro

IKUSKIZUNA

Agian, ezezaguna da zuretzat, baina mende askoz itxita egon den botila irekitzear dago. Hartan osagai mordoa dago magiaren historiari dagozkion zenbait garaitako usainez beteta: botilaren barruan sartuko den magoaren promesa, zirkuetan erabat inguratuta emanaldian aritzeko gai den ilusionista, magiaren sekretu handiak agerian jartzen dituen magoa, agertokian azken trukoan huts egiten duen prestidigitadorea, ikusle ororen pentsamenduak irakur ditzakeen mentalista, bere egiazko identitatea jakinarazten duen beste mago bat… Hauek dira, hain zuzen, ikuskizunak dituen usain horietako batzuk, guztiak magiaz eta historia magikoez beteta. Ireki belarriak, garbitu begiak eta jarri adi burmuina; maindireen eta hautsaren artean hainbeste urtez ezkutatuta egon diren historia magikoak agerian jarriko baititugu.

Hizkuntza: euskera edo gaztelania.
Nori zuzendua: helduak edo familiak,
10 urtetik gorako gazteentzat.
Iraupena: 75 minutu.

ISTORIOA

Konpainia honen ikur izan nahi duen horri tiraka, lan honetan Ramperekin hasi genuen ildoari jarraipena ematen diogu: historiatik istorio ahaztuak berreskuratu eta oholtzara eroan. Oraingoan botila barneko aztiaren istorioa dugu errotzat. XVIII. mendean iragarki bitxi bat azaldu zan Londreseko egunkari batean. Gau hartan, esaten zuen. Iragarki horrek, noski, garaiko gizartearen arreta deitu zuen, eta antzokia bete egin zan. Guztiok ikusi nahi zuten botila baten barnean sartuko zan mago hura! Antzokia bete zan, baina inor ez zan eszenatokira atera. Txantxa bat baino ez zan izan. Eta publikoa, haserre, antzokia guztiz suntsitu egin zuen. Eta txantxa hori erantzun gabe geratu zen, inork ez zekien nork edo zergatik publikatu zuen! Misterio bat izan zen... gaur arte, ikuskizun honen bukaera arte.



Lan Taldea

Cancamisa Teatro alkondaraz jantzitako txakurra izan zitekeen. Txakurra, jokatzearen eta mendekotasunaren arteko nahaste zehatzaren ikurra eta alkondara, dotoretasunez lan egin nahi izatearen seinale argia. Esan daiteke txakurrak Cancamisa Teatro sortu zenean jantzi zuela alkondara. Sorrera hori ezin daiteke egun zehatzean definitu. Ezta urte jakin batean ere. Konpainia hau agertokiekin harremana zuten bi pertsona elkartu zirenean eratu zen, batera lan egiteko gurari esker. Imanol Ituiño eta Juan Paños. Ikuskizun mordoa sortzeko fantasiak egin zituzten, baina Rámper pailazoaren historia ezagutu arte itxaron zuten, batera lanean hasteko. Eta, orduan, lankideak izateari utzi zioten konpainia bihurtzeko. «Rámper: vida y muerte de un payaso» ikuskizuna Bilbon estreinatu zen 2017ko ekainean, sortu baino lehen paraleloan bi urtez ikertu ondoren . Halaber, paraleloan, Cancamisa Teatro konpainiaren lan-esparrua sortu zen. Eta orain, ikuskizunaren historiatik beste hainbat istorio berreskuratu dituzte “Botila barneko aztia” ikuskizun honetan.

FITXA ARTISTIKOA

Imanol Ituiñoren ikuskizuna.

Zuzendaritza eszenikoa: **Juan Paños.**

Magia aholkularitza: **Gonzalo Albiñana.**

Argiztapena: **John Luhman**.

Magia aparailuen sokurtza: **Mago Nock**.

Luthier-a: **"Katxarrismos"**.

Soinu giropena: **Cancamisa Teatro**.

Musika: **Nerea Alberdi** eta **David S. Damián**.

Prentsa eta kritikak

Domingo, 02.02.20
EL CORREO

FOTOS: CANCAMISA TEATRO

El truco más allá del número de magia se desvela en el Social

Imanol Ituiño estrena su último montaje, 'El mago en la botella y otras historias de magia', esta tarde en el teatro basauritarra

LAURA CASTELLANOS

El Teatro Real de Londres aguardaba repleto de asistentes la aparición estelar del mago. Y no de cualquiera, sino de uno capaz de introducirse en el interior de una botella. Pero nunca se halló un rastro, ni de él ni de su magia. Aunque en un primer momento pensaron que su ausencia formaba parte del show, con el transcurso de los minutos la impaciencia dio paso a la ira y el auditorio londinense fue pasto de la incendiaria cólera colectiva. Era 1749 y este acontecimiento, tan real como la vida misma, será el eje conductor a cargo de otro ilusionista, al que si se le verá y disfrutará hoy en el Social Antzokia.

'El mago en la botella y otras historias de magia' se estrena en el teatro basauritarra a cargo de la compañía Cancamisa, formada por dos mentes «inquietas y muchas ganas de poner los trucos sobre el escenario». Con Juan Paños a la dirección, en esta ocasión su compañero de viaje, Imanol Ituiño hace las veces de actor, mago y hasta historiador si se pone. Curtido en esto de las «triquiñuelas» como él las llama, relatará el viejo suceso mientras «voy contando diferentes historias de la magia intentando, de alguna manera, encontrar quién fue el culpable de que aquel anuncio se publicase en el periódico». La revelación no llegará hasta el final, por lo que más vale no despistarse y centrar toda la atención a lo que ocurre sobre las tablas. Magia y teatro se dan la mano aquí como tantas otras veces, porque las artes están para juntarse, combinarse y experimentar con ellas. Y el lo sabe. «Es verdad que lo importante son los trucos de magia, no es un teatro donde hay personajes, pero sí que hay un pequeño hilo argumental con el que voy intentando guiar al espectador a una solución final».

Es por ello una obra de magia hecha teatro, una mezcla original con la que consigue atrapar la atención de la platea y además aprender más de un chascarrillo curioso que ha dejado su profesión a lo largo de los años. Lo oculto, sin chisteras de por medio, se resume a esa parte de los actores, artistas, magos... que no sale a la luz, porque lo importante es, en teoría, la moneda, el conejo o la carta. Pero la historia del espectáculo, y todo lo que hay detrás, es un montaje en sí mismo y a él le fascina. «Creo que la magia no es solo el secreto. Hay muchas otras cosas aparte, como intentar contar una historia, que haya una bonita ambientación, el ritmo que lleva el mago o qué propone para hacer el truco...», enumera Ituiño.

Una profesión en alza

Dice que la crítica más reiterada de ese mundo de fantasía en la de su escasa evolución, «que ver a un mago de los años 70 y ver a uno ahora es ver al mismos». Y en parte sí, pero también es consciente de los cambios e incluso, asegura, «me atrevería a decir que está de modas. Un rápido vistazo a la programación televisiva y la pista continúa en plataformas online, donde los canales en esta línea proliferan cada vez más. Esto confirma que cambios hay y que el público más joven se apunta a este tipo de entretenimiento. Y más aún, lo practica, con asociación de magos incluida.

Si bien nada tiene que ver con lo que ocurría hace un siglo. «Aunque parezca paradójico había más medios porque no había tanta tecnología, pero un mago que hacía una gira por Europa estaba en un teatro tres meses con un espectáculo enorme y una troupe de cincuenta artistas». Eran, como señala, «otros tiempos» en los que los 'Houdinis' de entonces tenían libertad para mover a su antojo el espacio. «Eran como estrellas de rock and roll, famosísimos en todo el mundo», bromea. «Es verdad que ahora no tenemos ese estatus de súper estrella, pero creo que sí está de moda y a la gente le gusta».

Ni la ingeniería ni los audiovisuales le sedujeron como lo hizo la magia, pero es que claro, aquel amorío empezó mucho antes. De momento ha jugado con dados, ha revivido la figura de payasos de otra época y se ha metido en una camisa, pero no de once varas, sino en una que con su fiel colega le ha permitido estar hoy en el municipio para desvelar un secreto. Para otro día, dice, abordará la práctica con espadas.

LAS CLAVES

Magia teatralizada

«Todo lo que salga de un escenario puede perfectamente beber de muchas fuentes»

El lado desconocido

«Me parece muy tierno encontrar la verdad de ese artista, historias que igual no se conocen pero son parte de su obra»

AL DETALLE

- **Dónde.** Social Antzokia.
- **Cuándo.** Hoy (18.00 h).
- **Precio.** 10 €.

«Askotan, magia ez dugu imajinatzen antzerkiaren eta dantzaren parean»

Imanol Ituiño • Magoa

Ituiñok dio magian «ia ezinbestekoa» dela publikoaren parte hartzea. Hain justu, hori da 'El mago en la botella' emanaldiaren aldeetako bat. Etzi arratsaldean taularatuko du lana, Bilboko Fundicion aretoan.

A. Igartua Aristondo

MARISOL RAMIREZ / FOKU

Trikimailuak eta magiaren historiako kontakizunak txirikordatuta ondu du Cancamisa Teatro konpainiako kide Imanol Ituiñok (Bilbo, 1989) *El mago en la botella* ikuskizuna. Antzerki baliabideetara ere jo du, magiaren harridura ez ezik, bestelako elementu batzuk ere gehitzeko lanari. Bilboko Fundicion aretoan izango da emanaldia, etzi, 19:00etan.

Nola sortu duzu ikuskizuna?

Ni magoa naiz, eta asko gustatzen zaizkit magiaren historia eta pasarte bitxiak. Ikuskizun horretan, magia egiten dut, baina istorio horiekin apainduta. Alde antzeztua ere badauka: gehien gustatzen zaizkidan istorioak aukeratu, eta trikimailuen artean kontatzen ditut. Nahasketa bat da.

Antzerkiaren zer elementuz baliatu zara, zehazki?

Trikimailu magiko bat asmatzean, edo publikoaren aurrean planteatzean, helburua beti da harritzea. Magiak ez bazaitu harritzen, ez da magia. Eta antzerkiak ez du zertan harritu. Nire ikuskizunean, batzuetan magiaren aldea indartzen dut, hau da, harridura bilatzen dut, nolabait; beste batzuetan, harridura bilatu beharrean, bilatzen ditut figura estetiko bat edo kontatzeko era bat.

Adibidez?

Badago trikimailu bat ez dena irteten bukaeran, nahita. Gainera, publikoari esaten zaio: «Hau gaizki irtengo da». Ez da magia gertatzen, baina, antzerkigintzaren ikuspegitik, zentzua du, kontatzen dudalako istorio bat non mago bat hil zen porrot egin zuenean. Publikoa ez da harritzen, baina logika dauka kontakizunaren barnean.

Adin guztientzat da.

Egia da edozeinek ikus dezakeela, baina ez da umeentzako ikuskizun bat. Batzuetan, *magia* hitza entzutean, pentsatzen dugu umeentzat dela. Ume batek ikus dezake? Bai; ez dut hitz itsusirik esaten, ez naiz biluzten..., baina ez da umeentzako zerbait. Adin guztietarako da, baina benetan: helduentzat, gazteentzat... 8-10 urtetik gorakoek ere ikus dezakete, arazorik gabe.

Halako publiko zabal batentzat izateak baldintzatzen du lanaren sorkuntza? Heldu batek eta 8-10 urteko ume batek ez dituztelako gauzak berdin ikusten...

Ziur nago ez dutela gauza bera gogoratuko, eta ez dutela berdin disfrutatuko, ume bati interesatzen zaiona ez delako heldu bati interesatzen zaion hori. Baina saiatzen naiz batzuetan publiko batentzat aritzen, eta besteetan, beste batentzat. Denek goza dezaten, bakoitzak bere moduan.

«Magiak ez bazaitu harritzen, ez da magia. Antzerkiak ez du zertan harritu. Figura estetiko bat bilatzen dut batzuetan»

Parte hartzeak ere badauka indarra.

Askotan, magoak oso bakarrik sentitzen gara agertokian, eta sarritan behar izaten dugu publikoaren laguntza. Oraingoan ere hala izango da. Neurri guztiak hartuta, baina ahal dugun heinean behintzat, harreman hori mantenduko dugu.

Hartu-eman horrek zure jarduna aberasten du, oro har?

Bai, dudarik gabe. Publikoak ikusi behar du kartak ez daudela prestatuta edo markatuta, edo kutxak ez daukala hondo bikoitza. Esango nuke magian ia ezinbestekoa dela publikoaren parte hartzea.

Fundicionekoek jaialdia antolatu dute, besteak beste, uste dutelako ilusionismoa desagertuta dagoela egitarau arruntetan. Zuk nola ikusten duzu egoera?

Lehen esan dudana diot berriz: badirudi magia umeentzako gauza bat dela, eta nik ez dut uste horrela denik. Eskertzekoa da Fundicion aretoak –non normalean dantza, antzerki garaikidea eta, orokorrean, gauza «ez-komertzialak» programatzen diren, kakotx artean esanda– magiari tartea egitea, magia badelako popularragoa. Askotan, magia ez dugu imajinatzen antzerkiaren eta dantzaren parean; ez dakit zergatik dagoen joera hori, baina nik uste dut primeran egon daitekeela besteekin batera.

Elkarrizketen estekak

Cadena SER. Radio Bilbao. COPE 10/02

Radio Nervión. Web. 08/02

La Ría del Ocio. Web 08/02 ARTEZ 11/02

Radio Euskadi. La Terraza. Viernes 18/02



“Magia ikuskizun bat, bai, baino askoz gehiago ere bada”.

Germán Castañeda, kazetaria eta antzerki kritikoa.

HARREMANETARAKO:

618499758 (Imanol Ituiño)

cancamisateatro@gmail.com

imanolitu@gmail.com